

**UNIBASQ EUSKAL UNIBERTSITATE SISTEMAREN KALITATE
AGENTZIAREN GOBERNU KONTSEILUAREN 2017ko MAIATZAREN 15eko
BILERAREN AKORDIOEN AKTA**

BERTARATUTAKOAK

Gobernu Kontseiluko kideak:

Cristina Uriarte andrea,
lehendakaria
Adolfo Morais jauna,
lehendakariordea
Eva Ferreira andrea, Agentziaren
zuzendaria
Nekane Balluerka andrea,
UPV/EHUKo errektorea
José María Guibert jauna, Deustuko
Unibertsitateko errektorea
Vicente Atxa jauna, Mondragon
Unibertsitateko errektorea
Esther Dominguez andrea
Pauli Dávila jauna
Enrique Amezua jauna
Fermín Garmendia jauna
Dña. Esther Gimenez-Salinas
Guy Haug jauna
José Luis Iriarte jauna
Iker Martín jauna

Zuzendariak gonbidatuta Aitor
Zurimendi jauna, zuzendari
ondokoa, dator.

(O) Onarpen puntua.

Eusko Jaurlaritzaren Bilboko Lurralde Ordezkaritzaren C1 aretoan (Kale Nagusia 85), 2017ko maiatzaren 15eko 15:30etan bildu da UNIBASQ Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren Gobernu Kontseilua, Cristina Uriarte andrea buru dela. Alboan adierazitako jaun-andreak bertaratu dira, honako gai-zerrenda honekin:

1. 2017ko martxoaren 16ko akta irakurri eta onartzea. (O)

Aho batez onartzen da.

2. Lehendakariaren txostena.

3. Zuzendariaren txostena.

4. Etika eta Berme batzordearen memoria 2016.

5. Deustuko Unibertsitatea eta Unibasq-en arteko lankidetzaren Hitzarmena, Deustuko Unibertsitateko irakasle kontratatu ez iraunkorren ikertramoak ebaluatzeko. (O)

Onartzen da Hitzarmena.

6. Deustuko Fundazioa eta Unibasq-en arteko lankidetzaren Hitzarmena, Deustuko Fundazioak kontratatutako ikertzaileen ikertramoak ebaluatzeko. (O)

Onartzen da Hitzarmena.

7. Unibasq-en Lanpostu eta mailen esleipenaren monografikoa, 2016-2019 Programa-Kontratuan esandakoari jarraiki.

8. Ebaluazio teknikari berri baten lanaldi partzialean kontratazioa, 2016-2019 Programa-Kontratuaren helburuak betetzeko.

9. Galderak eta eskaerak.